



Conseil de Développement du Pays Basque  
Euskal Herriko Garapen Kontseilua



## GIZARTE ZIBILAREN FOROA

Zein lurralde proiektu Euskal Elkargoarekin?

Lantegiaren sintesia

**Biztanle berriei harrera**



# Biztanle berriei harrera

Caroline PHILLIPS eta Claude LABATEk animaturik

## AGERIAN DENA ETA JOKOAN DENA

Ipar Euskal Herriko biztanleria etengabe handitzen ari da, kanpotik jende anitz datorkigulako. Etorrin horiek batzuetan lehiakidetzat hartuak dira, batez ere bizitegiak edota lanpostuak eskuratzeko: lehia hori batez ere gazteen kaltetan da gertatzen (datozenek baino formakuntza maila apalagoa dute, prezio gorako bizitegiak eskuratzeko diru baliabide apalagoak...).

Kalitatezko harrera eginen badiegu, etorkin horiek ez ditugu lehiakidetzat hartu behar, lurraldeko biztanle berrizat baizik.

## NOLAKO ARRAPOSTUA EMAN?

Halako harrera bat egitera heltzeko **nork bere ahalegina behar du egin**, hala biztanle berriei nola jadanik bertan kokaturik izan eta berriak hartzen dituztenek ere.

Alde batetik, jakin beharko genuke nor kokatzen zaigun Ipar Euskal Herrian eta zeren xerka datozen biztanle berri horiek: alde materialez haratago, gizarte loturak garatu nahi izaten dituzte maiz, lurraldean kokatzea...

Beste aldetik, jakin beharko genuke zer nahi diegun transmititu, hau da, balios zaizkigun eta proposatzen ditugun nortasuna eta balioak:

- hizkuntza, nortasun eta gizarteratze faktore garrantzitsuak;
- euskal nortasuna, ez folkloriko baina moderno eta irekia.

**Euskal eragile bilaka dadin** dugu harrera arrakastasuaren gakoa.

Eskolaren edo lanaren bidezko gizarteratzeaz gain, elkarteen sarea baliu dezakegu auzoetatik ahalbait hurbilen liratekeen jarduerak proposatzeko. Jarduera bat edo kirol bat partekatzea bide eraginkorrak dira erraz gizarteratzeko, are eta gehiago tokiko elkarte asko eta asko behar jakinak dituztenean...

Bestela erranik, eragile izan eta lurraldearen alde engaiatzea harrera arrakastatsuaren adierazgarria litzateke: xedea etorkin berriei bide horretan mugitzen laguntzea da.

## URRATZEKO BIDEAK...

- **Galdeketa** etorri berriei
- **Harrera liburuxka / Gida** bat Ipar Euskal Herri osorako
- **Euskararen eta euskal kulturaren** aldeko ekintzak
-